

| | | | | | |
|---------------------------|----|------|------------|----------------|--------------------|
| Lurralde : invest. espac. | 40 | 2017 | p: 123-143 | ISSN 0211-5891 | ISSN 1697-3070 (e) |
|---------------------------|----|------|------------|----------------|--------------------|

NEKAZAL USTIATEGIEN ABANDONOA, GERO ETA LARRIAGOA: GIPUZKOAKO ADIBIDEA

Recibido: 2016-05-017

Aceptado; 2016-08-29

Juan Cruz Alberdi Collantes.

EHU Geografia Saila.

Letren Fakultatea.

Francisco Tomás y Valiente, s/n. Apartado 2111. 01006 Vitoria.

juancruz.alberdi@ehu.eus

LABURPENA: Bi hamarkadetako denbora bitartea kontuan hartuta Donostialdean egindako lagin baten bitartez nekazaritzaren abandonuaren prozesua baserri ustiategi ereduan nola gauzatzen ari den jasotzen da. Bertan abandonuaren prozesuaren zabalpena zenbatekoa den zehazten da, ia erabatekoa eta berehalakoa dela ondorioztatuz. Fenomenoa Donostialdeako baserrira, Gipuzkoako eremu guztietara eta oro har Euskal Atlantiko eremu guztira zabaltzen da. Horretaz gain, eginiko ikerketa ezberdinek prozesu orokor baten aurrean gaudela azaltzen dute eta antzematen diren ezberdintasunak abandonuaren unearen araberakoak dira, aurreratua goa zenbait kasuetan besteetan baino baina orokorra kasu guztietan.

HITZ GAKOAK: baserria, Donostia, Euskal Herria, nekazaritza, nekazaritzaren abandonua.

RESUMEN: Tomando como referencia los resultados obtenidos en una investigación relativa al abandono del caserío en el periurbano de San Sebastián con un intervalo temporal de dos décadas, se demuestra como se materializa un proceso de abandono generalizado e inmediato de la función agraria, un fenómeno que parece extenderse a toda la provincia de Gipuzkoa y, con ello, a todo el caserío vasco-atlántico. Los resultados obtenidos confirman los del ejemplo de San Sebastián, un fenómeno cuya única diferencia parece presentarse en el grado de materialización que éste presente en cada caso pero que finaliza con un abandono de la función agraria generalizado.

PALABRAS CLAVE: caserío, San Sebastián, País Vasco, agricultura, abandono agrario.

ABSTRACT: The result of a one investigation about the process of the less farm activity near to San Sebastian shows that this process is global, intensity and immediate. In this paper we try to study the intensity of the process in Gipuzkoa and in the all Basque-Atlantic farm exploitation. As result, the situation of the farm activity in San Sebastian area is getting in all Basque Country. The most important difference is the outpost situation of this process in the different areas but the intensity will be similar.

KEY WORDS: San Sebastian, Basque Country, agriculture, farm less, farm exploitation.

Ustiatgien galera sektorearen birmoldaketaren bilakaera orokor batean integratu behar dugu. Prozesuak mende bat baino gehiagoko iraupena du baina mende erdialdetik aurrera intentsitate handiarekin gauzaten ari da.

Produkzio-unitateen kopurua murriztea ez da derrigorrez nekazaritza sistema ahultzea. Jarduera esku gutxitan batzen ari da ekoizpen ahalmena mantendu edo zenbait kasutan gehitzen den bitartean (Etxezarreta et al, 1996; Calcedo, 1996). Merkatuaren agindupean ustiategiak efizienteagoak bihurtu behar dira eta agindupen horretan datza proiektuaren einkizuna.

Landa eremuak ustiatgien eta nekazaritzaren desagertzea nola gauzaten ari den testiguak dira. Sortutako abandonua hiri-inguruaren hazkunde handiena ematen den unetan bereziki bizia da. Hiri-guneak eskulana eskatzen dute eta nekazari askok hiri-jardueren diru-iturri gisa aukeratu dute.

Abandonua, ordea, are biziagoa da lurzoruaren garapenerako funtzioa fisiko edo gisa zailtasunak gainditu behar baditu, hala nola, mendiko eremuaren zailtasunei aurre egin behar badu. Era honetako eremutan irauten duen nekazaritza, garatutako ekoizpen ereduarekin konparatuz gero, zailtasun fisikoak eragindako ondorioak direla medio, ezberdintasun sozio-ekonomiko oso garrantzitsuak aurkezten du.

Euskal baserria, mendi-inguru batean eta hiri-eskualde batean garatutako ustiatgia izanda, nekazaritzaren desagertzearen prozesuaren adibide garbia da. Nekazaria aktiboa mantentzen da eta jarduerarekin jarraitzen du zahartu arte. Belaunaldi erreleboa familia barruan planteatzen denean jarraipen eza agerian gelditzen da, egoera hau areagotuz hiri eremutik hurbil dauden eskualdeetan, Lapurdi, Gipuzkoa eta Bizkaiko baserrietan bereziki.

Ikerketa honen helburua Euskal Baserrian garatzen ari den abandonuaren prozesuaren azterketan sakontzea da. Ikertzaile ezberdinen arabera lauogei eta hamargarren hamarkadatik aurrera nekazaritzaren abandonorutzak Euskal Baserria baina prozesua luzea da, une ezberdinak dauzka eta ez da berdina gauzaten leku guztietan. Usurbilgo adibidearen bitartez azken hogeitun urte hauetan abandonua nola gauzaten ari den aztertuko dugu. Lan honen bitartez Olatz Altuna eta Kontxi Uriarteren lana goraiatu nahiko genuke, garai ezberdinetan baserriz baserri entrebistaren bitartez sektorearen errealitatea

azaltzen jakin izan dutelako. Bestalde, Usurbilgo Udalak eginiko ahalegina ere goraiatu nahiko genuke, herriaren, patrimonioaren eta nekazaritzaren ezagutza behin eta berriro bultzatu egin duelako.

1.- Abiapuntua: abandonua gauzatzeko bidean Euskal Herriko baserrian.

Ikerkuntzaren abiapuntua, Euskal Herriko ikerketa artikulua sorta baten emaitzekin lotu behar dugu (Porcal, 1996; Mauleón, 1998; Ainz, 1999; Alberdi 2001). Bertan, ikuspegi desberdinetatik eta maila ezberdinetan, nekazaritza funtzioa bertan behera gelditzen ari den ondorioetara iristen da, ondorio hauen arrazoi ezberdinak azpimarratuz.

Produkzio unitatean oinarritzen diren ikerketa gehienek abiadura eta errealtate ezberdinak azpimarratzen dute, baserria jasaten ari den aipatutako birmoldaketan. Orokorrean bi norabide nagusi ikusten dira. Lehendabizikoa, eta nagusiena, abandonuarena da. Bigarren kasu batean ustiatuegiak ustiakuntza sistemak hobetu eta nekazaritzaren alde egiten dute. Bien artean badago hirugarren bat, erdiko egoeran, oraindik jarduera nabaria duenarena baina nekazariak, zahartzen den arabera, ez du erabakirik hartu hobekuntza eta abandonuaren artean (Alberdi, 2001). Ikerlariek mende berriaren hasieran jasotako nekazari talde nagusiak jasotzen dugu jarraian.

Nekazaritzaren alde egiten duen taldea epe erdira nekazaritzarekin jarraitzeko erabakia hartuta duen taldea da (Mauleón, 1989). Adinen ertaineko nekazariak gobernatzeko ustiatuegiak dira edo, gurasoen eskutan egon arren, gazteen interesa jardueran jarraitzeko nabarmena da. Kasu gehienetan esne behietan espezializatutako ustiatuegiak dira, beste batzuetan negutegietan ekoiztutako baratzagintzan espezializatuak ditugu eta gutxienak ardigintzan. Jardueraren esleipena eskusiboa da, hiru lagun batez beste lanaldi osoan enplegatzen diren ustiatuegiak dira. Ustiatuegi dinamikoak dira, hobekuntza metodoak etengabe inkorporatu egin dituztenak, ekoizpen gaitasuna handituz joan direnak eta kapitalizazioa areagotzeko estrategia batekin instalazioak eredu baten aldeko apustua egin dutenak. Ia guztiak inbertsio handiak egin dituzte edo prozesuan daude. Mendearen hasieran ikerlariek talde honetan zeunden ustiatuegi guztien % 10^a barneratzen zuten.

Nekazaritza marjinalatzen ari den taldean abandonua ez da erabat gauzatu. Baserriko lan-unitatea (UTA) baino gutxiago erakusten dute gehienak, hau da, 600 €tik azpiko errenta, eta egoera hau ekoizpen sektore guztiei zabaldua dago. Gehienak erretiro adinetik hurbil daude, nekazariak izan dira bere bizitzan, baina gazteen jarraipen ezaren ondorioz bere jarduera gutxitzen joan dira. Beste adibidetan gazte titularrak dituzten ustiatuegiak dira, baserriarren semeak, baina beraien ogi bidea hiriko jardueretan oinarritzen da eta nekazal jardueraren helburua oinordetza aktibo mantentzea da. Multzoko honen dinamika argia eta garbia da, atzerakoa, edo, nolana ere, jarduera marjinala mantentzea mugatuta. Zenbait kasutan baserrian beti egon den bigarren mailako jarduerak irauten dute, balio ekonomiko marjinala aurkeztu ohi dutenak, hala nola, fruta, baratza edo ardiak. Beste batzuetan, berriz, abeltzainak lanbidez izanda, behiak mantentzen dituzte baina kopurua eta ustiatzeko era aldatuz, estentsiborantz jo. Ikertzaileen arabera 10etatik 8 ustiatuegi egoera honetan egongo liriteke.

Bitarteko egoera batean hirugarren taldea dugu. Ekonomikoki bere jarduera

ez da garrantzitsua baina marginalitatea gainditu egiten du, UTA eta bi UTA bitarteko errendimenduak lortuz. Bertan bi joera desberdin antzematen dira. Edo inbertsioei ekiten dioten eta ekoizpen maila gehitu egiten duten edo jarduera marginalizatzen hasi abandonuaren bidea hartuz. Kasu gehienetan profesional dira, urteetan gora egin dutenak, baina gazte baten laguntzarekin kontaktzen dute. Gazteak, ordea, ez du jarraitzeko erabakia hartu eta bitarteko egoera horretan aurkitzen dira. Besteetan hirian lan egiten duten gazteak dira baina, gurasoen laguntza izanda, jarduera garrantzitsua mantentzen dute. Egoera honetan ustiategiaren % 10 kokatzen dira, beti aipatutako azterketen arabera.

Familiaren buruaren erabakiaren baitan dago nekazaritzaren jardueraren jarraipena eta erabaki hau familiako gazteen interesaren baitan dago. Ustiategiaren titularra, 55 urtetik gora, ikusten ez badu bere seme-alabaren artean nekazaritza jarduerarekin jarraitzeko interesa dagoela, abandonura eramango duen prozesua abian jarriko du. Erabakiak ez dira bat-batekoak, nekazaritza bere ogibidea bait da, baina ez du bere ustiategia hobetuko, ez du inbertsioak burutuko, ez da egokituko merkatuaren exijentzia berrietara eta, ondorioz, jarduera progresiboki marjinala bihurtzen da.

55 urte baino gutxiago dituzten titularren kasuan, jarduera dedikazioa (esklusiboa / partziala) da ustiategiaren arteko diferentzia markatzen duen ezaugarri adierazgarriena. Oro har, nekazaritza-jarduera handitzen denean baserriko lanaldi osoan lanean ari den gazteak ondorioztatzen da. Hauek jarduera intentsibotan aritzen dira, esne behietan bereziki baina baita negutegia eta gaztagintzan. Jarduera partzialeko nekazaria gazteek ustiategiaren hobekuntzak xumeak burutzen dituzte, ekoizpen estentsiboak (larre behiak) eta errendimendu maila txikiagoa.

Jarraian gauzatuko den ikerketan adibide batean oinarritzen da eta, beraz, ezin da frobatutzak eman bertan azaltzen den fenomenoaren Euskal Herriko Kostako baserri eremu guztietara aplikatu daitekeenik. Baina egoera orokorra da eta azken hamarkadetan egin diren ikerketak egoera hau islatzen dute. Emaitzak, beraz, adierazgarri bezala hartu beharko lirateke nahiz eta bere datuak kontraste handiagoa behar izan.

Lan honen bitartez orain dela hogeitau urte ikertzaile ezberdinek planteatu zituzten joera ezberdinak egun zertan diren jasotzeko helburua dugu. Abiapuntu bezala Usurbilgo herria aztertuko da, herri honek bere baserri guztien lagina zabalago jaso zuen orain dela bi hamarkada eta berriki datuak berriro ditu.

2.- 1996 eta 2015, hogeitau urteko tartea nekazaritzaren bilakaera aztertzeko: Usurbilgo adibidea

Usurbilgo udalerrian Oria ibaiaren ibilguan dago kokatuta, lurralde eredu arrunta Gipuzkoako udalerrietako erantzuteko, bailara batekin bertan hiri-jarduerak eta landa erabilerak garatzeko nagusitzen haranean den eremu zabal mugatuz.

Hala eta guztiz ere, arlo honetan egitura geologikoa oso konplexua da. Alturak ez dira garrantzitsuak salbuespen kasuetan izan ezik eta 300 m nekez gainditzen dira. Horietan, karst prozesuen nagusitzen dira eta, Gipuzkoako beste herri batzuetan ez bezala, ibai haranak entitateak dute gure inguruan. Oria ibaiaren higatutako substratu eta haren

produktu gehiago jasotzen dira, bailara honetan zabaltzen espazioak mugatzen du terrazen sistema bat sortuz. Erriberaren eremuaren izaera honek beste herriekiko nekazaritzaren ezberdintasunak markatzen ditu, bereziki baratz funtzioen garatzeko aukera.

Azkeneko lau belaunaldien ikerketa zorrotzaren ondoren, nekazari askoren jaioterria Aia edo Zizurkil izan dela, eta, herrira, ezkontza bidez edo maizter etorri zirela lur jabe handien baserrietara. Horien aldean, bestalde, badira familia bakan batzuk sortetxean bertan bizi izan direnak, mendeak joan mendeak etorri, abizena bera ere aldatu gabe. Usurbilgo lurretan 256 baserri izan ziren. Gaur egun 200 bat etxe gelditzen dira zutik, nekazaritzarako sortuak izan zirenen artean.

Ez du ematen urte gutxitan desagertuko direnik, baina horien eragina udalerrriaren ekonomian gero eta eskasagoa da. Zenbakiak diote Usurbilen hirurogeita hamar direla euren burua nekazari jotzen dituztenak, eta horietan gehienek erretiroa hurbil dute, pasata ez badute dagoeneko. Beste hainbeste gertatzen da abeltzaintzarekin, baserrien erdietan baino ez baita abererik, gehienetan norberaren kontsumorako eta lehen izandako jardueraren erakusgarri.

Usurbilgo baserriak hustu ahala etxe bihurtuko dira, gero eta estimatuagoak neurriengatik eta eraikuntzaren kalitateagatik, gero eta eskurago daudelako, eta ezin direlako hobeto kokatu. Baina ematen du azkenetara iristen ari direla haien inguruan egituratutako bizimodua eta sortzen ikusi zituen nekazari gizartearen ziklo historikoa, zeinetan nekazari familiak ziren Usurbilgo bizitzaren protagonista nagusi eta haien baserriak, bizikidetzaren hainbat arloko zutabe: antolaketa politikoa, ekonomia, bizilagunen arteko harremanak eta lurraldearen eta aberastasunen kudeaketa. (Usurbilgo baserriak eta baserritarrak. Noaua!)

1996. urtean 119 baserri bisitatu ziren, eta haiek burutzen zituzten lanak ezagutu ziren, bai nekazaritzari dagokionez eta baita abeltzaintzari. 2006garren urtean baserriarren gizarte egoera aztertzeke Behemendiko Landa Garapena bultzatuta azterketa bat egin zen Usurbilen. Bertan bisio bat jasotzen zen nekazaritzaren egoeraz nahiz eta proiektu honetako helburua ez zen jardueraren egoera aztertzea. Ikuspegi honek, inpresioetan oinarrituta, nekazaritza jardueraren egoeraren indikatzaile egokia iruditzen zaigu, bertako ikertzaile batek egoera modu horretan ikusten bait du. Proiektuaren egilea azpimarratzen zuen nola oraingoan egin den azterketatxoan baserri berdinak bisitatu egin dira, lehengo datuak eta orain lortzen ari direnak konparatu ahal izateko. Gehienetan baserri jarduerak mantentzen dira orain dela hogeit urte bezala, etxeko zaharrenak bizi diren bitartean, baina hauek falta direnean, gehienek baserri aktibitatea utziko dutela aipatu behar da.

Nekazaritzari eta abeltzaintzari dagokionez, bere egoera tamalgarria dela aipatzen du ikerlariak. Gaur egun, ia inork ez du lan hauetan jardun nahi, gutxi batzuk bizi dira lan hauetatik, eta hauek diotenez buru gogorrek direlako eta ez dutelako etsi nahi jarraitzen dute. Abeltzaintzarekin zenbait laguntza jasotzen dituzte baina hau ez dela bidea azpimarratzen dute, gaiak edo produktuak balio duena ordainduko baliete ez luketela laguntzen beharrik izango diote. Gehienek ardiak eta behiak erabiltzen dituzte zelaia garbi mantentzeko, esnetako behiak ia ez dira geratzen.

Nekazaritzan aritzen direnak gehiago dira, baina hauek ere beraien etorkizuna beltza ikusten dute, ez baitu jarraipenik. Gazteek etxetik kanpo egiten dute lan eta ez zaie denbora askorik gelditzen baserriko lanekin jarraitzeko. Familia askok asteburuetan ekiten

diete baserriko lanei, guztien artean lanak banatuz, baina hauek ere gutxitzen doaz. Gure baserrietako aiton amonen lanarengatik ez balitz etxeko produktu gutxi egongo lirateke. Nekazaritzako ustiakuntza etxerako produktuak ekoizteari lotua dago, gero eta gutxiago dira beraien produktuak saltzen dituztenak.

2.1.- 1996ko ikerketa utzitako ondorioa: abandonua oraindik abiatzeke

Usurbilgo Udalak eta Behemendi Mendi Nekazari Elkarteak eskatutako azterketa honek Usurbilgo baserrien analisia egiten du. Ikerketaren emaitza bi txostenetan biltzen da. Ikerketa honetan datu hauek laburtu eta jarraian garatzen ditugu. Ikerketa 1996an egin zen Olatz Altuna gidatua (Behemendi, 1996). Egun egin denarekin alderatu eta ondorioak ateratzea da gure helburu.

Azterketa 191 baserriren gainean egin zen. Hauek guztiak izaera eta egoeraren arabera sei multzo nagusitan sailkatu dira: 9 erdi eroriak, 15 hutsak, jarduera berri bati ekin diotenak 15, Baserri jarduera baztertu eta etxebizitza arrunt bihurtu direnak 22, Etxerako soilik ekoizten dutenak 37, Salmentarako ekoizten dutenak 106. Ikerketak 143 baserrietako datuak erabili ditu eta hauetan baserri aktibitatea baitago.

2.1.1.- Baserrietako biztanleria

Usurbilgo populazioa baldin bada 5248 biztanle, Baserrietan bizi den herritar kopurua 550 biztanle dira. Beraz, Usurbilen 10 biztanle bakoitzeko 1 baserrian bizi da (%9,5 a), hauetatik 253 emakume eta 297 gizonezko.

Usurbilgo eta baserrietako populazioaren adin-taldeak (1996)

| | USURBIL | BASERRIAK |
|-------------------------------|-----------------------|----------------------|
| 0-14 urte bitartekoak | 607 biztanle (%11,6) | 37 biztanle (%6,7) |
| 15-29 urte bitartekoak | 1394 biztanle (%26,6) | 120 biztanle (%21,8) |
| 30-44 urte bitartekoak | 1226 biztanle (%23,4) | 110 biztanle (%20) |
| 45-59 urte bitartekoak | 1008 biztanle (%19,2) | 83 biztanle (15,1) |
| 60-74 urte bitartekoak | 724 biztanle (%13,8) | 121 biztanle (%22) |
| 75etik gorakoak | 289 biztanle (%5,5) | 64 biztanle (%11,6) |
| Erroldatu gabeak | | 15 biztanle (%2,7) |
| GUZTIRA | 5248 biztanle (%100) | 550 biztanle (%100) |

Hortaz, baserrietako populazioa, herriko populazio orokorra baino zaharragoa da. Orokorrean, jakina da Euskal Herriko biztanleriak zahartze-prozesua bizi duela. Populazioaren zahartze hau are nabarmenagoa da baserri munduan, eta horrek bere iraupena baldintzatu dezake etorkizunean.

Baserrian lan egiten duten 213tik, soilik 44k (%8) dute nekazaritza Gizarte Asegurua. Hauetatik gehiengoa gizonezkoak dira (%64). Bestalde, 9 baserrian bi pertsonen dute NGA, beraz aipatu 44 aseguruak 35 baserrian biltzen dira.

Atal honetan aipatzen den aldagaia (baserri-lanarekiko dedikazioa) inkestatuak berak, balorazio pertsonal eta subjektiboen ondoren aitortutakoa da. Alegia, datu hauek ez dira neurketa kuantitatibo baten ondorioa, inkestatuaren uste eta balorazio propioa. Altunak ateratako baizik. Baserri lanarekiko dedikazioa adinaren arabera aztertzerakoan, honako hauek dira ondorio nagusiak.

- Baserrian lanik egiten ez dutenen erdia baino gehiago (%55a) haurrak eta gazteak dira, 0 eta 29 urte bitartekoak alegia.
- Baserriko lanetan laguntzen dutenen multzo nagusia berriz (%29a), 15etik 29ra bitarteko gazteek osatzen dute. 30 eta 44 urte bitartekoek aldiz %27a hartzen dute dedikazio maila honetan.
- Baserri lanetan dihardutenen gehiengoa 45-74 arteko helduen adin-taldean kokatzen da.
- Sexuaren araberako interpretazioan aipatzekoa da baserrian dihardutenen artean gehiengo zabala (%66a) gizonetakoek osatzen dutela. Bere burua "Baserrian lan egin" atal honetan kokatzen duen emakume kopurua %34a baino ez da.
- "Baserrian lagundu" erantzunean kokatzen den emakume kopurua %64koa da. Emakumeari orain arte behintzat egotzi zaizkion lanek ez dute gizonarenak bezain besteko balorazioa jaso. Hori dela eta, badirudi emakumeak berak ere bere lana laguntza gisa baino ez duela kontsideratzen.

Gehienak baserriaren jabeak dira. 15 kasutan maizter gisa daude, eta gainerako 7 kasuetan jabetza baserrian bertan nahiz kanpoan bizi den senideren bati edo gehiagori dagokio. Batez beste, etxebizitza bakoitzean 3,8 senide bizi dira. Etxebizitza bakoitzeko batez besteko biztanle kopurua, auzo-auzo, antzekoa da.

2.1.2.- Baserrien lur kopurua eta jarduera

Baserri bakoitzak, batez beste, 5,7 hektarea ditu 1996. urtean. 17 baserrik ez dute lurrik. Hauetako 15etan maizter gisa daude, eta baserriko jabearen lurrak erabiltzen dituzte. Lur hauen inguruko informazioa eskuratzea ezinezkoa izan da.

| HEKTAREA KOPURUA | BASERRIAK |
|---------------------------|-----------|
| Lurrik ez | 17 (%12) |
| 2 hektarea baino gutxiago | 31 (%22) |
| 2tik 5era | 33 (%23) |
| 5etik 9ra | 29 (%20) |
| 9tik 15era | 17 (%12) |
| 15etik 20ra | 5 (%3) |
| 30 hektarea baino gehiago | 2 (%1) |
| Ez daki / Erantzunik ez | 9 |

Jarraian datorren koadroan 1996an zegoen lurraren erabilpena ikusten da. Lur-sail mota bakoitzaren azpian halakorik duen baserri kopurua adierazten da.

| | BARATZA | SAGASTIA | BELAZEA | PINUDIA | BESTERIK | ERABILI GABE |
|------------------------|--------------|-------------|--------------|-------------|-------------|--------------|
| BASERRI KOPURUA | 124 (%87) | 56 (%39) | 124 (%87) | 33 (%23) | 28 (%20) | 19 (%13) |

Gehiengoak baratza lantzen du, eta horietatik %75ak etxerako soilik ekoizten du. Baserrien %39ak sagastia du, (datu hau aztertzerakoan kontutan izan behar da sagarrondo kopurua asko aldatzen dela baserri batetik bestera). "Besterik" ataleko 28 baserrietan harizti, fruitu-arbola, e.a.ekoak aurki daitezke. 19 baserrik ez dio inongo erabilpenik ematen lur-sailen bati. Bestalde, 79 baserrik (%55ak) beraienez gain (lur jabeak badira) besteen lurrak erabiltzen dituzte.

Maila ezberdinetan baserri lanetan diharduten 143 baserrietatik 37k etxerako soilik ekoizten dute (autokontsumoa). Baserriko produktuak saltzen dituzten 107 baserrietatik 28k baserri jarduera du diru-iturri nagusia; gainerako 79 baserrietan, salmentarako ekoizpenean diharduten arren, garrantzia handiagoa du baserriaz kanpoko lanak jarduera honek baino. Baserria jarduera nagusi duten 28 baserrietatik 18k baserri lana du jarduera bakarra edo eskusiboa; hau da, baserria da familiaren diru-iturria.

Salmentarako ekoizten diren produktu nagusiak behi haragia (%31), behi esnea (%26), eta sagarrak dira (%25). Jarraian datorren taulak, aipatuak barne, Usurbilgo baserrietan 1996 an ekoizten diren produktu mota guztiak biltzen ditu.

| BEHI HARAGIA | BEHI ESNEA | SAGARRA | BARAZKIAK | ARKUMEA | ZEKORRAK |
|-------------------|-------------------|-------------------|-------------------|-------------------|-----------------|
| 45 baserri %31 | 37 baserri %26 | 36 baserri %25 | 31 baserri %22 | 24 baserri %17 | 7 baserri %5 |

Behi haragia: Usurbilen, larre behiak dituzten baserrietan, batez besteko behi kopurua 5,2koa da, baina hala ere, baserri batetik bestera alde handia dagoenez, adierazgarriagoa da baserriak behi kopuruaren arabera multzokatzen dituen koadro hau:

| LARRE-BEHI KOPURUA | BASERRIAK |
|--------------------|-----------|
| 1 eta 4 artean | 27 (%57) |
| 5 eta 9 artean | 14 (%30) |
| 10 eta 15 artean | 5 (%11) |
| 29 buru | 1 (%2) |

47 baserri hauetatik 45ek salmentarako ekoizten dute. Gehien errepikatzen den behi kopurua 2koa da: 12 baserrik behi pareta dute. Behi gehien dituen baserriak 29 buru ditu. Eta baserri multzo handiena 5 behi baino gutxiagokoan biltzen da. Aipatzekoa da, haragiaz ari garela, 7 baserritan (%5) zekorrek erosi eta gizendu ondoren berriro saldu egiten dituztela.

Behi Esnea: Usurbilen esne behiak dituzten baserrietan (37), batez besteko esne behi kopurua 14koa da. Esne behi kopurua (476) larre behi kopurua (242) baino handiagoa den arren, haragi ekoizpena (45 baserritan) esne ekoizpena (37 baserritan) baino baserri gehiagotan burutzen da.

| ESNE BEHI KOPURUA | BASERRIAK |
|-------------------|-----------|
| 1 eta 4 artean | 12 (%32) |
| 5 eta 9 artean | 9 (%24) |
| 10 eta 19 artean | 7 (%19) |
| 20 eta 30 artean | 5 (%13) |
| 30 eta 40 artean | 1 (%3) |
| 40 eta 50 artean | 1 (%3) |
| 50 eta 60 artean | 1 (%3) |
| 60 eta 70 artean | 1 (%3) |

Sagarra: 36 baserritan (%25) salmentarako sagarra egiten dute, kopurutan batetik bestera alde handia badago ere.

Barazkiak: 124 baserrik (%87ak) baratza lantzen dute, baina hauetatik 31k (%25k) bakarrik ekoizten du salmentarako.

Arkumea: Ardiak 24 baserritan daude, eta hauetan batez besteko ardi kopurua 59koa da. Datu hau aztertzekeo garaian, hala ere, kontutan izan behar da ardiak 24 baserritan aurki daitezkeela. 24 baserri hauetako ardi kopuruak oso desberdinak dira. Esaterako, batez bestekoa asko igotzen duten bi baserri daude, 286 eta 325na ardi dituztenak, eta kopuru hauek ez dute joera nagusia adierazten. Gehiengoak (%62,5) 40 ardi baino gutxiago ditu.

2.1.3.-Salmentan diharduten baserrien etorkizuna.

| 1996. DIHARDUTENAK | | | | | |
|--------------------|------------|------------|------------|------------|-----------|
| BEHI HARAGIA | BEHI ESNEA | SAGARRA | BARAZKIAK | ARKUMEA | ZEKORRAK |
| 45 baserri | 37 baserri | 36 baserri | 31 baserri | 24 baserri | 7 baserri |

| ETORKIZUNEAN JARRAITZEKO ASMORIK DUTENAK (1996) | | | | | |
|---|------------------|------------------|------------------|------------------|-----------------|
| BEHI HARAGIA | BEHI ESNEA | SAGARRA | BARAZKIAK | ARKUMEA | ZEKORRAK |
| 18 baserri (%40) | 16 baserri (%43) | 19 baserri (%53) | 15 baserri (%48) | 10 baserri (%42) | 4 baserri (%57) |

Kontutan izan behar da salmentan aritzen diren 106 baserrien artean badirela produktu bat baino gehiago ekoizten dutenak. Altunaren arabera salmentan diharduten baserrien erdiak (54 baserri) etorkizunean jarduera hori utziko duela dio.

Produkzioaren jaitzieraren arrazoi nagusiak baserrietako biztanleen zahartze-prozesua eta baserri-lanerako belaunaldi berrien eza dira. Bi gertaera hauek Euskal Herri osoko nekazaritza eta abeltzaintza pairatzen ari den eraldaketa islatzen dute: baserrien desagertzea, hustea, etxebizitza arunt bilakatzea, jarduera ekonomiko berriei ekitea (aterpetxeak, sagardotegiak, jatetxeak...).

Badira dena den, baserri jarduera egoera sozio-ekonomiko berriari egokitu diotenak. Usurbilen esaterako, azken urteotan zabaldu diren bi nekazaritza turismo etxeak eta baserriko oilasko edota lore eta landareen ekoizpen intentsiboak aipatu behar dira.

Bestalde, badira baserrietik kanpo bizi arren, nekazaritza aktibitateari heldu diotenak. Honelako kasuak industria krisiaren ondorioa dira, eta baserri lanetara itzuliz, egun nekazaritza bizi daitekeela erakusten dute.

2.2.- Usurbilgo baserria egun: aurreikusten ziren joerak ezkorrek espero baino gehiago areagotu dira

1996. urtean, Usurbilgo Udalak eta Behemendi Landa Garapen Elkarteak baserrien ustiapenari buruzko azterketa egin zuten. Azterketa hori egin zenetik 18urte igaro ondoren, nekazaritza sektorearen egoera asko aldatu da, eta, beraz, udalak sektorearen egoera aztertu nahi izan du berriro, gaur egungo egoera eta premiak ezagutzeko asmoz. Lan honen xedea da herriko baserrietan egindako jardueren benetako egoera ezagutzeko, premiak ezagutzeko eta haien arabera jarduteko. Ikerketaren egilea Kontxi Uriarte izan da (Usurbilgo Udala, 2014).

Azterketa hau egiteko erreferentziatzat hartu da 1996an egindako lana, eta zehazki, eta abiapuntu gisa, azterketa horretan aurkeztutako 154 elkarrizketak; izan ere, une hartan nekazaritzako edo abeltzaintzako jardueraren bat garatzen zuten baserriak ziren.

Kasu honetan, 162 fitxa aurkeztu dira, 1996an egindako 154 fitxekin bat datozenak gehi beste 8 ustiategi gehiago; dena den, 140 elkarrizketa egin ahal izan dira soilik. Horren arrazoia zera izan da, zenbait baserri desagertu direla edo horietan ez dela inor bizi, ustiatagia utzi dutela (oro har, hiriguneko baserriak dira), ezin izan direla lokalizatu edo, besterik gabe,

ez dutela elkarrizketarik egin nahi izan. Hala ere, gaur egungo datu guztiak lortu ez arren, 1996an aurkeztutako 154 fitxak aurkeztu dira, gaur egungo egoera ezagutzeko xedez.

2014ko azterketan landutako atalak

- Baserrien izena, helbidea, telefonoa eta elkarrizketa egin duen pertsonaren izena
- Biztanleak: baserrian bizi den jendearen izena eta adina
- Baserria: jabetasuna eta baserriaren egoera
- Nekazaritza jarduera: sektorean jarduten duten pertsonak adierazten dira, eta egiten duten jarduera mota.
- Lurrak: saiatu da lurren kopurua eguneratzen.
- Diru-laguntza: jasotzen diren adierazi da, eta nondik lortzen duten horiei buruzko informazioa.
- Makinaria: daukaten makinariaren zerrenda.
- Kidetza: zein elkartetakoak diren.
- Etorkizuna: ustiategiarekin aurrera jarraitzeko asmoa duten ala ez jaso da, baita haien gogoetak ere.
- Lurrak errentan jartzeko prest dauden ala ez.

2.2.1.- Egoeraren analisisia

Gaur egun 116 ustiategi daude era batera edo bestera lehen sektorean dihardutenak; horietako 5 ez daude baserri bati lotuta. Ustiategi horiek 3 taldetan sailkatu dira:

- Dedikazio osoa: ustiategitik bertatik lortutako diru sarrerekin soilik bizi direnak.
- Dedikazio mistoa edo partziala: ustiategitik diru sarrerak lortzeaz gainera, ustiategitik kanpo ere lortzen dituzten ustiategiak dira.
- Autokontsumoa: norbere kontsumorako elikagaiak ekoizten dituzten edota lursailei eusteko edo garbitzeko animaliak dituzten baserriak dira.

116 ustiategitatik 19 soilik aritzen dira sektorean profesionalki, eta, gainerakoa, hau da, % 83,6, partzialki edo autokontsumorako aritzen da. Hurrengo taulan ustiategien dedikazioa alderatzen da 1996koarekin.

JUAN CRUZ ALBERDI COLLANTES

| | USTIAPENAK | DEDIKAZIO OSOA | MIXTOA | AUTOKONTSUMOA |
|------|------------|----------------|------------|---------------|
| 1996 | 143 | 28 (%19,5) | 78 (%54,5) | 37 (%26) |
| 2014 | 116 | 19 (%16,4) | 21 (%18,1) | 76 (%65,5) |

Dedikazio osoan diharduten 19 ustiategitik 11 (% 58) aritzen dira baratzea lantzen eta 8 (% 42) abeltzaintza lantzen. Azken talde horren baitan, % 50k ustiategia utziko du epe motzean edo ertainean, erretiroa hartuko duelako eta belaunaldi erreleborik ez dagoelako.

Dedikazio partziala duten 21 ustiategitatik 13k (% 62) haragi behiak lantzen ditu, 9k (% 43) sagastiak ditu, batek (% 4,8) ardiak ditu, eta beste batek (% 4,8) oilasko ustiategia dauka.

Dedikazio osoko eta partzialeko ustiategien alderaketa, lortutako produktuen arabera.

| | ESNEA | HARAGIA | ARKUMEA | TXEKOR | BESTE | BARAZKI | SAGAR |
|------|----------|------------|----------|----------|----------|-----------|------------|
| 1996 | 37 (%26) | 45 (%31) | 24 (%17) | 7 (%5) | - | 31 (%22) | 36 (%25) |
| 2014 | 2 (%1,7) | 17 (%14,7) | 4 (%3,4) | 1 (%0,8) | 4 (%3,4) | 11 (%9,5) | 16 (%13,8) |

Oro har, jarduera guztiak murriztu direla bistakoa izan arren, azpimarratu behar da esne behien ustiategiek eta ardien ustiategiek izan duten jaitsiera gogorra; hain zuzen, esne behien ustiategiak 37 (% 26) izatetik 2 (% 1,7) izatera igaro dira, eta ardienak, berriz, 24 (% 17) izatetik 4 (% 3,4) izatera.

- Esnea: 2 ustiategiak oso desberdinak direla esan behar da; izan ere, batek 130 behi ditu, eta gazteek kudeatzen dute, eta, besteak, berriz, 8 behi ditu soilik, eta titularrak ia erretiroa hartuta daude; beraz, ustiategi hau desagertu egingo da etorkizun hurbilean.

- Haragia: dedikazio handiena duen sektorea da, hein batean lehen esnearen sektorean zihardutenetako batzuk haragiaren sektorera igaro direlako. Hala ere, nabarmendu behar da horietako hiruk ustiategia utziko dutela.

- Barazkiak: dedikazio gehien duen hirugarren taldea da. Oro har, adin ertaineko jendea aritzen da lanean eta ustiategi batek izan ezik, gainerakoek jarduerarekin jarraitzeko asmoa dute.

- Sagarra: 16 ustiategik dituzte sagarrondoak, eta horietako bostek sagardotegia dute. Horietako hamarretarako, berriz, jardueraren osagarri bat da.

- Besteak: azpimarratu behar da 2 jarduera berriren instalazioak jarri direla: bata, oilaskoen hazkuntzarako, eta, bestea, txerrien hazkuntzarako. Era berean, oilaskoen ustiategi bat handitu da.

Ustiategi guztien banaketa, garatutako jardueren orientazioaren arabera.

| | ESNEA | HARAGI | ARKUME | TXEKOR | BESTE | BARAZKI | SAGAR |
|------|----------|------------|------------|----------|----------|------------|------------|
| 2014 | 5 (%3,4) | 35 (%30,2) | 42 (%36,2) | 3 (%2,6) | 4 (%3,4) | 98 (%84,5) | 66 (%56,9) |

2.2.2.- Etorbizuna

Oro har, Uriarteren arabera jendeak beltz ikusten du nekazaritzaren etorkizuna. Hauek dira, besteak beste, arrazoiak:

- Abeltzaintzan jarduten direnek edo jardun direnek esan dute hainbat faktorek izan dutela eragina ustiategiak uzteko edo murrizteko orduan. Batetik, prezioen auzia dago; izan ere, pentsuaren prezioa igo besterik ez da egiten, eta esnearen prezioa, berriz, izoztu egin da, eta haragiarena aldatu egiten da (batzuek diote nahi dutena ordaintzen dutela). Bestalde, instalazioei eskatzen zaizkien baldintza sanitarioak daude; hain zuzen, gero eta handiagoak eta zorrotzagoak dira. Azken kasu horretan, gainera, kexu dira eskakizun horiek berberak direlako ustiategi handietarako nahiz txikietarako.

- Gazteak: ez dago belaunaldi erreleborik. Gazteek ez dute nahi baserriko lanetan jardun, uste dutelako lan oso sakrifikatua dela, ordu askotan aritu behar dela eta oporretarako denbora gutxi uzten duela.

- Kontsumoa: jendeak merke erosi nahi du, eta ez du tokiko produktua balioesten. Krisi garai honetan, are nabarmenagoa da hori. Produktu ekologikoei dagokienez, askok pentsatzen dute garestiegiak direla eta horregatik, zaila dela horiek saltzea.

Oro har, jendeak ez ditu alokatu nahi bere lursailak eta gutxi daude aukera hori kontuan hartzeko prest. Hori egitekotan, gainera, alokairuaren eskaintza eta baldintzak hartuko lituzkete aintzat beti.

Lursailak alokatu nahi ez dituztenek izandako esperientziak txarrak aipatzen dituzte erabakia justifikatzeko, onurak baino arazo gehiago izan zituztelako eta beste batzuek, berriz, arrazoitu dute lursail guztiak erabiltzen dituztela.

Lurraldearen gainerakoan gertatzen ari den moduan, Usurbilen ere profesionalki edo partzialki sektorean lan egiten duten ustiategi kopurua murrizten ari da. Hala ere, autokontsumorako jarduten duten baserrien ehunekoa areagotu da, bai lursaillei garbi eusteko modu gisa, bai tradizioagatik eta kulturagatik. Hain zuzen, azken talde hori baserrien % 26 izatetik % 66 izatera iritsi da, eta horrek erakusten du gure inguruneari eustean izan dezaketen garrantzia.

3.- Abandonuaren prozesuaren ondorioak: nekazaritza erabileraren oreka jokoan.

Usurbilgo lanean, hala ere, jasotako datuak askoz gehiago dira. Bai batean eta baita bestean metodologia berdina erabili zen, hau da, elkarriketa zabala izan herriko nekazari guztiekin. Konbertsazioaren ondorioak fitxa indibidualetan jasotzen dira eta

hauetatik ondorio gehiago atera daitezke, besteak beste lurraren erabilera, egungo oreka eta etorkizunean egon zitezen nekazaritza erabileraren inguruak.

Egindako elkarrizketetan erabiltzen zituzten lurren inguruan galdetu egiten zitzairen erregimenarengatik, hau da, ea lurrak jabetzan, arrendamenduan edo lagapenean erabiltzen zituzten. Emandako erantzunen artean lurraren beharraren inguruan arlo nagusienak jasotzen dugun jarraian.

- **nekazaritza jarduera ez zituzten ustiategiak.** Kasu guztietan funtzio honen utzila zegoen eta lurrak arrendatu edo lagatu egiten zituzten hirugarren bati. Beste kasuetan lur forestalak zituzten, hauetariko asko koniferen erreprobazioekin erabilitaz. Hau da gehien gehitu den baserri mota. 1996an 16 ustiategi egoera honetan, egun ditugu 53.
- **jarduera gutxitzen edo marjinala den ustiategiaren kasua.** Hau da aurreko taldearekin batera gehien gehitu dena. Jardueraren garrantzi ekonomikoa txikia da, eta ekoizpena gehien bat autokontsumora zuzentzen da. Egoera honetan jarduera duten ustiategiaren erena dago. Egoera ezberdinak, hala ere, sumatzen dira kasu honetan:
 - Eren batek, bere oinordetzaren erabilera marjinala du, kasu gehienetan bat edo bi ganadu unitateak. Bere oinordetzaren parte txiki bat erabiltzen zuten, etxe ondoan zegoena kasu gehienetan, baina bere lurraren zati handi bat beste abeltzainari usten diote.
 - Beste ustiategiaren multzoa, taldearen erdia gutxi gora behera, aurrekoak bezala jarduera marjinala dute baina bere ustiategi osoa erabiltzen ahalegintzen dira. Belardiak ez daude baldintza egokietan eta kasu gehienetan azpi-ahalegintza nabaria da.
 - Azken taldea, txikiena, bere lurraz gain besteak ere erabiltzen dituzte. Abeltzain profesionalak izandakoak ziren kasu guztietan baina adinaren eta jarraipen ezaren ondorioz extensifikazioruntz aspaldi joanda zeuden eta UGMak txikiak ziren egun, aurrekoak bezala. Oso estentsiboki erabiltzen zituzten lur sailak (ardi talde txiki bat, larre behiaren bat,...) eta belardien azpi-ustiatzeta nabaria zen kasu guztietan.
- **Abeltzaintza iraunkorra zuten ganaderiak.** Kasu hauetan ustiategiak erabateko edo partzialeko dedikazio (Etxezarreta, 1984) dute baina denek lehendabiziko UTA gaintzen dute, hau da, marginalizazio ekonomikoa gaintzen dago. Baina talde hau aurreko garaiarekin alderatuz izugarritzko jetsiera izan du, bereziki esne behietara dedikatzen direnak. Lurraren eragina duten abeltzainak dira eta talde honetan 20 ustiategi zenbatzen dugu. Lurraren erabilerearen inguruan ordea bai daude diferentzi nabarmenak:
 - Gazteak enplegatzen dituzten erabateko dedikazioa edo mistoak diren ganaderitzak. Kasu gehienetan ganaderitza gehitu egin dute eta besteak beste partzelak erabiltzen dituzte. Azken bi hamarkadetan lur gehiago bereganatu dituzte, hein handi batean besteak usten zituzten lurrak. Baina kasu guztietan lur mekanigarriak beregatu dituzte, ez mekanigarriak alboratuz. Beraien

ustiategiaren lur eremuaren hiru laurdenak arrendatuak edo utziak dira eta zenbait kasuetan gehiago. Egoera honetan 6 ustiategi daude, 1996an 28 zenbatzen genuen bitartean.

- Beste batzuk, abeltzain funtzioa ez dutenak, hau da, sagastiak, negutegiak, eta baratza bereziki, bere lurra erabileran mantentzen dute bere jarduera horrela eskatzen diolako edo besteetan abeltzain talde txiki bat mantenduz ustiategiaren lur marjinaletan erabileran mantendu ahal izateko. Egoera honetan taldearen erdia aurkitzen da, hau da, 20 ustiategiak. Baragintzaren sektorearen egonkortasuna da bi hamarkadaren arteko berezitasuna
 - Azken taldea UTArak hurbiltzen diren abeltzain ustiategiek osatzen dute. Zenbait kasuetan erabateko dedikazio izan dute baino jada zahartuz bere kopurua etengabe jaisten ari da. Kasu honetan oraindik bere lur sailak erabiltzen dituzte eta gainera besteak hartzen dituzte baina kopuru txikitetan. Funtzio erregresiboa aurkezten zuen taldearekin antzekotasun asko ditu baina oraindik badago familiaren partaide batek ez jubilatuta eta labore hauetan laguntzeko prest dagoena. Ez du gehitzeko joerarik azaldu azken urteetan eta kasuren batean edo bestean izan ezik laster erregresiboa bihurtu da. Talde honetan 14 ustiategi aurkitzen ditugu.
- **Bere etorkizunaren inguruan erabakia hartu ez duten ustiategiak.** Jabetzan dituzten lurak osatzen dute bere ustiategia. Jubilatzeke adina duen jendea da eta zain daude ea familiako norbaitek interesa azaltzen duen. Talde hau bi hamarkada aurretik zabalago zen baina dagoeneko gehienek erabakia hartuta dute. Ez dugu ustiategirik egun egoera honetan

Etorkizunera begira gehienek 6 ustiategiek besteen lurak erabiliko dituzte, 154 baserritik. 1996an aurreikusten zen kopurua hau txikia izango zela, 15 ustiategikoa, baina perspektibak ez dira bete eta espero zena baino abandono handiago eman da. Arazoa areagotzen da kontuan hartzen badugu oraindik abeltzain zaleak diren ustiategi kopurua etengabe gutxitzen jarraitzen duela (14 besterik ez dira gelditzen marginalitatea gaintzen dutenak) eta gehien ikusten den joera erabateko hutsikeria edo marginalizazioa da. Nekez egun dagoen baso, sasi eta belardiaren arteko ohiko oreka mantenduko da.

Abandonuaren expektatibak espero baino handiagoak izan dira. 1996an nekazari erdiek jarduera utziko zutela aurreikusten zuten baina datu hauek areagotu dira. Profesionalak esne behi sektoretan kontzentratzen ziren. Esne behietan etorkizunean jarraitzeko itxaropena zuten 18 ustiategiek ziren, momentu horretan zeudenaren erdia. 2014an 2 dira jarraipena mantendu dutenak eta etorkizun laburrean esnetegi bakarra izango du herriak. Beste horrenbeste larre behiekin eta arkumekin gertatu da. Azken kasu honetan herriak artzain profesionalak guztiak galdu ditu dagoeneko.

4.- Usurbilgo egoera, errealitate orokor baten isla

Lur erabileraren inguruan jarraitzen duen abeltzainaren erabakiak estrategikoak izango dira paisaiaren mantenurako. Elikagai eredua, eskulanaren aukerak, ganaderitza karga eta lur erabileraren inguruan hartzen diren erabakiak, diru laguntzen kontzeptuak...

hutsikeriaren intentsitatean izugarritzko eragina izango dute. Baserri hauek lur erabilgarriaren mantenurako estrategikoak bihurtzen dira baina, nahiz eta luraren aldeko erabakiak hartu, ezin izango dute egungo oreka mantendu. Egia esan, gelditzen diren ganaderoen artean bakar batek bakarrik lur gehiago hartuko duela aipatu du.

Usurbilgo paisaia aldatzen ari da dagoeneko. Extensifikazio nagusitzen ari da mekanigarriak diren lur eremu gehienetan eta mekanigarriak ez ziren belardi eta larreetan abandonua nabarmentzen ari da. Lurraren erabilerarekin subentzioak lotzea moteltzen du abandonuaren prozesua baina nekazaririk gabe etorkizun motzeko neurria da hau (Ikus Argazki nº1).

Argazki nº1. Extensifikazioa eta abandonua lur eremu askotan



Egoera, hala ere, ez da bakarrik gauzatzen Euskal Baserrian. Mendi zonaldeek, oro har, nekazaritza eskulanaren faltaren ondorioei aurre egin behar diote. Zahartasunak, desinteresak edo emigrazioak geografikoki eta paisajistikoki izugarritzko ondorioak sortzen dute. Mendi zonaldeetan antzemandako birmoldaketak Usurbilen, Donostialdean eta Euskal Baserrian antzematen dira. Zonalde hauek, nahiz eta hirigunetatik hurbil egon, mendi zonaldeak dira eta hutsikeriaren izpiak nabariak dira.

Usurbilgo adibidea jarraituz, eta beste mendi zonaldeekin alderatuz, ez da ematen kasu honetan bailarako zonaldeetan ganaderitzaren konzentrazio edo intensifikazioa. Adibide honetan extensifikazio prozesua gune guztietara zabaltzen da, izan arana edo malkarra.

Hirurogeigarren hamarkadatik ohiko erabilera izandakoa, belardia, mantendu egiten da baina extensifikazioa nagusitzen da, baita baldintza agrologiko oneneko eremu askotan, erriberak barne. Belardien mozketaren kopurua gutxitzen da, kasu askotan urtean bat emanez. Gainontzeko denbora guztia belardiak ganaduaren larrerako erabiltzen dira. Orain dela bi hamarkada hiru eta lau sega ematen zitzaion mekanigarriak ziren partzelei. Adibide gehinetan, ordea, ez da belarra moztzen eta ganadua bertan larratzen du urte guztia. Salbuespen bakarra dedikazio adierazgarriko baserriak dira. Lur gehiago bereganatu dute, makinariarekin laguntzen dira eta partzela gehiago erabiltzen dute egun. Baina ustiategi hauek gutxi dira eta belardi gehienek azpieroabilera nabarmena azaltzen dute.

Belardien azpieroabileraren arrazoia, beste mendi zonaldeetan bezala, lana egiteko nekazal eskulanaren falta da. Horretaz gain, extensifikazio eta hutsikeri hain sakonaren arrazoiaren atzean hiriaren hurbiltasunaren ondorioa ere bada. Baserriak kudeatzen dituen eta hirietatik urrun dauden beste lurraldetan, Nafarroa Behera edo Zuberoa adibidez, partzela emankorrenetan erabileraren intensifikazio nabaria da. Gipuzkoa eta Bizkaiko baserriak jasaten duten hiri presio izugarriaren ondorioz nekazaritza lur merkatu baten presentzia deuseztatuta gelditzen da. Jabeak bere lurrekin espekulazio perspektibak ditu eta ez du inolako konpromisorik nahi beste nekazariekin. Ez du bere oinordetza alokatu nahi eta abere gutxi batzuekin partzelen belardien erabilera mantentzen saiatzen da. Baina karga gero eta txikiago da eta gazteak titularidadeaz jabetzen direnean abereak kendu egiten dituzte. Horrelako kasuetan, beti prekarioan, inolako adosmen idatzirik gabe, hirugarren bati partzelaren zesioa egiten diote. Erabiltzaile berriak ez du partzelaren erabileraren inguruan inolako garantiarik eta ez du eremua hobetzen ezta belardian inbertitzen. Belardiak ematen diona, ematean dion bitartean, bildu egiten du, azpi-erabilera mantenduz. Egoera honi, nabarmena orain dela bi hamarkadetan, elementu berri bat batzen zaio orain, neurri batez espero zena, abeltzain falta nabariaren ondorioz interesatuen eza.

Aurreko ikerketarekin konparatuz (1996) badirudi une berri baten aurrean gaudela. Garai horretan azpi-erabileraren egoera nabaria izan arren ez zen ikusten belardi eta larreen galera nabaria. Egun, abeltzain eta abereen falta dela eta nabarmena da lur sailen abandonua kasu askotan, bereziki guneez mekanizagarrietan. Garoa ez da biltzen, sasia han hemenka nagusitzen hasten da, zenbait belardi erabat utzi egin dira, zelai batzuetan sasia bazterretan eta etsitupetan gailendu egiten da, beste garaian goldetutako zelaiak larre dira egun urte osoan... Bere momentuan aipatzen bagenuen egoera hau partzela gutxi batzuetan bakarrik nabaria ba zen, egun ez da oraindik erabatekoa, ezta egoera nagusia, baina bere presentzia orain bada nabaria (Ikus argazki n°2).

Bestalde, erabileraren inguruan, behin abeltzainen galera nabarmentzen denean, belardiari ez zaio erabilera alternatiborik gailentzen. Basoaren erabilerak, pinua edo eucalitusa bereziki, bere presentzia gutxitzen jarraitzen dute, berez sortutako baso atlantikoari bidea zabaltzen. Abandonu prozesuan belardi on batzuk jarraitzen duten abeltzain eskuetan gelditu dira eta barazkigileek, piper egileek bereziki, erriberako zenbait lurrak bereganatu dituzte. Baina hauek adibide puntualak dira, inoiz ez berez datorren abandonuari eta sasiari aurre egin ditzaketen ekimenak (Garcia Pascual, 1998).

Argazki nº 2. Larretik sasira nekazal eremuko partzela askotan



Hala eta guztiz ere, lur guztiek ez dute bide berdina jarraituko. Jabeak, zuzen edo zeharka, bere oinordetzaren lurren ekoizpen maila mantentzen saiatzen jarraituko du eta ziurrenik agrologikoki lur onenen nekazaritza erabilera mantentzen jarraituko du. Ekonomi (balorearen galera) edo kultural (ohitura) arrazoiak daude mantentzeko joera honen atzean. Subentzioen politika ere lagungarria izan daiteke eskubideak erabiltzen den azaleraren arabera banatzen diren bitartean. Lur lagapenak, hitzartutako gabeko arrendamenduak, garbitze aldeko formulak... erabiltzen jarraituko dira baina urrutiko partzelak, mekanizagarriak ez direnak eta abeltzain gabeko zonaldeetan berez sortutako sasi eta basoari lekua egiten ari zaio dagoeneko. Extensifikazio partzela onenetan, eta abandonua aukera agrologiko gutxiagoko partzeletan, errealitatea bihurtzen ari da egun.

Kosta aldeko baserria berez, intensifikazio-abandonoa edo ustiategi-azpierzabileraren arteko binomio erantzun beharrean, mendi zonaldeetan gertatzen ohi bezala, errealitate berezi batera erantzuten ari da, non extensifikazioa lur onenetan eta abandonua txarretan garatzen ari den. Ikusteko dago egoera hau iraunkortzen den edo, gerta liteken bezala, erabateko abandonurantz eramaten gaituen prozesuaren isla den.

5.- Kostako nekazal baserria, erabateko abandonu baten aurrean. Ondorio moduan

Usurbilgo lagina abandonuaren prozesua nola gauzatzen ari den antzemateko aukera ederra bada ere, kontuan hartu behar dugu Gipuzkoako baserri eremu guztietara zabaltzen ari den eredu baten aurrean gaudela. Ikerkuntza ezberdinek hala erakutsi zuten orain dela hamarkada bat (Murua, 2000; Madinabeitia, 2001; Osoro, 1997; Azpeitia, 2001; Siadeco, 1990) eta Usurbilgo adibideak datu berriak jartzen ditu aurreikusten ari zen prozesua ikertu ahal izateko. Ikerketaren emaitzak, ordea, ez dira ditugatu behar Gipuzkoako eremuetara bakarrik. Emaitza berdinek Bizkaia, Lapurdi eta neurri handi batez Nafarroako baserri eremu guztietara zabaltzea daitezke, mendi zonaldearen eragin ohikoari hiriaren eragina gehien antzematen diren eskualdeak direlako.

Ustiategiak abandonuaren prozesuan aurrean hiru talde nagusietan sailkatzen jarraitzen ditugu egun, bi hamarkadaren ondoren. Oraindik ere badago gazteek gobernatu edo lan egiten duten ustiategi iraunkor taldea. Talde honetan ohiko bi joerak antzematen dira.

- Alde batetik, erabateko dedikazioa duen taldea, esne behitegiak eta baratz ustiategiak, eta jarduerarekin jarraitzeko intentzio nabaria azaltzen duena. Inbertsioak egiten jarraitzen du, lur gehiago bereganatzen eta jarduera berriak inkorporatzen ditu, baragintza ekologikoa eta oilategiak Usurbilgo adibidean. Taldeak azken hogeitun urteetan ez du bere dinamika aldatu baina ekoizpen mota eta kopurua ezberdina da egun. Asko jetzi da, kopuruan erdira, esne behi sektorea. Talde iraunkorra zela uste genuen orain dela hogeitun urte baino asko murriztu da egun, bereziki abeltzaintza, eta ustiategi guztien % 4 izatera ez da iristen egun.
- Beste batzuk, ordea, oraindik UTA gaineko ekoizpen ahalmena mantentzen dute, pertsona bat enplegatzeko modukoa, baina jarduera modu partzialean egiten dute. Hauetariko batzuk zahartu dira eta ustiategiak marginalizatzen ari dira. Egoera honen isla larreko behien ustiategiak dira. Talde iraunkorra zela uste zen baina ez da horrela gertatu eta abandonoruntz abiatzen ari da

Talde zabala 1996an, eta egun erabateko nagusitasuna duena jarduera guztia abandonatu duen taldea da edo, gehinez jota, jarduera marjinala eta autokontsumora zuzenduta mantentzen duen taldea da. Gazte interesaturik ez duen adineko taldea zela esaten genuen orain dela hogeitun urte. Epe honetan adineko asko hil dira eta beraien seme alaben artean desinteresa nagusitu da. Gurasoak bizirik zeuden bitartean gutxiengo jarduera mantentzen zuten. Behin ustiategiak bere eskutan gelditzen denean batzuk ohiturari heldu egiten diote eta oinordetzaren zati bat erabiltzen jarraitzen dute era marjinalan edo, eta horrela gertatzen ari da kasu gehinetan, jarduera guztia uzten dute. Baserriak nekazaritza funtzioa galtzen du baina erresidenziala berdin jarraitzen du. Epe honetan ez da antzematen utzitako baserriak eta asko dira bigarren etxebizitza bere eremuan egin dutenak. Egoera honetan, erabateko abandonua eta aisiarako nekazaritzaren artean, ustiategi guztien % 90 baino gehiago egongo litzateke egun.

Antzematen genuen hirugarren taldea, bitarteko egoera batean, gazteek etorkizuna erabakitzen zuten bitartean, marginalizazioa jo du nabarmen. Gurasoek jarduera mantentzen zuten hobekuntza handirik egin gabe. Kasu bakar batzuetan aukera eman die gazteei

jarraitzeko, baina ohikoak ez ziren jardueretan (Baratza ekologikoa eta oilaskoak).. Adibide gehienetan ordea esneetatik larretara pasa da, egun buru bat edo beste mantenduz, inolako esan nahi ekonomikorik eta oinordetza mantentzeko helburuarekin. Paisaiaren orekaren erantzule zen talde hau, gazteen erabakia ezinbestekoa jotzen zelako. Baina joerak ez du zalantzarik azaltzen eta azpi-erabilerak nagusitzen dira talde honen desagerpenarekin.

Orain dela hamarkada batean argitutako ikerketa batean prozesu bakarra aurreikusten zen baserri eremuan. Abandonuaren prozesua nabaria zen azaldutako adibide guztietan eta ezberdintasunak abandonuaren unean antzematen ziren, zenbait kasuetan aurreratuagoa zegoelako eta besteetan ez horrenbeste. Usurbilgo adibidearen egoera, konparaketa horretan, bitartekoa zen, ez aurreratuagoa ez atzeratuagoa. Bitarteko egoera baten adibide bezala hartuko bagenu, aztertutako adibidea abandonua eta azpi-erabilera ia erabatekoa dela ondorioztatu behar da.

Herrien eta guneen artean antzemandako ezberdintasunak tenporalak dira, industrializazio eta nekazaritza dedikazioaren graduaren arabera. Baina prozesua berdina da kasu guztietan eta bukaera ere ez du ezberdintasun handirik planteatzen, hau da, abandonuarena. Profesionalen kopurua antzekoa izango zela antzematen zen, %5-10 bitartekoa alegia. Hemen sumatzen dira aldatetako, kopurua %5azpitik egongo delako kasu gehienetan, esne behien ustiatzearen galeraren ondorioz. Abeltzaintzaren galera nabaria da kasu guztietan eta bere eragin paisajistikoa izugarria izango dela antzematen da.

Nekazaritza eremua bere gestore nagusia galtzen ari da era azkar batean eta berarekin batera azken hamarkadetan eremuak erregulatu duen jardura nagusia, abeltzaintza. Lur erabileraren aldatetako antzematen dira nekazaritza eremuan, sasiari eta utzikeriari pausoa emanez.

6.- Bibliografía

- AINZ IBARRONDO, M.J. (1999): *El caserío vasco: territorio para un país neoindustrial*. Universidad del País Vasco. Tesis Doctoral inédita. Vitoria-Gasteiz.
- ALBERDI COLLANTES, J.C. (2001): *De caserío agrícola a vivienda rural: proceso de abandono de la función agraria en el periurbano de San Sebastián*. Universidad del País Vasco. Tesis Doctoral inédita. Vitoria-Gasteiz.
- AZPEITIA GONZALEZ, A. (2001): *Análisis de la situación del caserío de Zizurkil*. Inédito. Asociación de Agricultura de Montaña de Tolosaldea. Tolosa.
- BEHEMENDI (1996): *Situación del medio rural del municipio de Usurbil*. Inédito. Oiartzun.
- CALCEDO ORDONEZ, V. (1996): "El régimen de cuotas lácteas. Análisis y balance de su aplicación en las Comunidades Autónomas de la España Húmeda (1992-1996)". *La vocación ganadera del norte de España. Del modelo tradicional a los desafíos del mercado mundial*. Ministerio de Agricultura, Pesca y Alimentación. Madrid, pp. 398-428.

- ETXEZARRETA, M. (1984): *La agricultura a tiempo parcial en Euskadi*. Inédito. Oiartzun.
- ETXEZARRETA, M., CRUZ, J., GARCIA MORILLA, M. y VILADOMIU, L. (1995): *La agricultura familiar ante las nuevas políticas agrarias comunitarias*. Ministerio de Agricultura, Pesca y Alimentación.
- GARCIA PASCUAL, F. (1998). *La ganadería en Cataluña. Desarrollo y estructuras del complejo ganadero-industrial*. Milenio, Lleida.
- MADINABEITIA, T. (2001): *Lehen sektorea Arrasaten*. Arrasateko Udala. Inedito.
- MAULEON, J.R. (1989): "Los cambios de la explotación familiar según el tipo de familia: Explotaciones de leche en el País Vasco". *Agricultura y Sociedad*, nº 52, pp. 95 -117.
- MAULEON, J.R. (1998): *Estrategias familiares y cambios productivos del caserío vasco*. Gobierno Vasco. Vitoria-Gasteiz.
- MURUA URIBETXEBERRIA, A. (2000). *Caseríos de Lezo*. Ayuntamiento de lezo (Gipuzkoa).
- OSORO IGARTUA, J. (1997): *Caseríos de Elgoibar*. Deba Beheko Mendi Nekazaritza Elkarte. Elgoibar (Gipuzkoa)
- PORCAL GONZALO, M.C. (1996): *Evolución reciente y estado actual de las explotaciones agrarias de Navarra*. Tesis Doctoral inédita. Universidad del País Vasco. Vitoria-Gasteiz.
- SANTANA, A. (1993): *Baserria*. Gipuzkoako Foru Aldundia/Diputación Foral de Guipúzcoa. Donostia.
- SIADeco (1990): *Diagnostico de la realidad social de Lasarte-Oria. Estudio de las necesidades actuales. Propuestas generales de intervención*. Inédito. Donostia.